HERNANIKO EDATEKO UR HORNIDURA SAREAREN DATUAK JASOTZEKO ETA INBENTARIOA EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAREN BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN (NEXT GENERATION EU)

1. XEDEA ETA AURREKARIAK

Kontratuaren xedea da Hernaniko udalerriko edateko ur hornidura sarearen datuak jasotzeko eta inbentarioa egiteko zerbitzua kontratatzea, sarearen datu fidagarriak lortzeko. Datu fidagarri horiekin sarearen modelizazio eta kudeaketa egokiagoa egin ahal izango da.

Udalaren ur hornidura sarea garatu eta kudeatu den hamarkadetan zehar, sarearen ezaugarriak pixkanaka jaso eta inbentariatu dira. Horrela, urte horietan guztietan bildutako informazio gehiena udalaren Informazio Geografikoko Sisteman (GIS) dago eskuragarri gaur egun.

Hala ere, sarearen eguneroko kudeaketan inkongruentzia ugari azaleratzen dira sarea osatzen duten elementu batzuen posizioan, tipologian, materialean eta diametroetan, eta horrek zaildu egiten du kudeaketa egokia egin ahal izatea. Beharrezkoak diren zuzenketez gain, sareko elementu askoren informazioa osatzea ere falta da.

Adierazitakoagatik, uraren zikloa digitalizatzeko Berreskurapen eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren (PERTE) esparruan emandako finantzaketa aprobetxatuz, edateko uraren banaketa-sarearen datuen jasoketa eta inbentario xehetua egin nahi da, eskura dagoen informazioa eguneratu, zuzendu, osatu eta hobetzeko, informazio horrekinn sarearen modelizazio eta kudeaketa fidagarriagoa egiteko.

2. LANEN DESKRIBAPENA

<u>Sarearen ezaugarriak</u>

Udalaren Informazio Geografikoko Sisteman (GIS) eskuragarri dauden datuen arabera, udalaren ur hornidura sarearen hoditeriak 102 km inguruko luzera du.

Guztizko horretatik, %73, gutxi gorabehera, 80mm-ko diametroa edo handiagoa duten hodiei dagokie. Hodi horiek material desberdinez osatuta daude. Gehienak burdinurtu harikorrezkoak eta burdinurtuzkoak dira, baina polietilenozko/PVCzko hodiak ere badaude. Azkenik, azken hamarkadetan pixkanaka ordezkatzen joan diren arren, oraindik udal sarean zuntz-zementuzko hodiak dituzten zatiak berritzeko daude.

Gainerako %27a 80mm-tik beherako diametroa duten hodiei dagokie, eta neurketa horren zati handi bat hartune partikularrei dagokie.

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus

Eman beharreko zerbitzua dimentsionatu ahal izateko, gaur egun udalaren GISean dagoen informaziotik abiatu behar da. Adierazi den bezala, informazio hori eguneratu gabe dagoenez, informazio zaharkitua edo okerra izan dezake. Eskuragarri dauden datuen arabera, sareak, besteak beste, elementu berezi hauek ditu:

- 112 bentosa
- 1.493 balbula
- 1.102 hartune-balbula
- 1.041 hidrante edo ureztatze-aho

Metodologia

Lehenik eta behin, banaketa-sarean kokatu eta sarean zehar gidatu ahal izateko, udaleko GISean eskuragarri dagoen informaziotik abiatu beharko du esleipendunak. Informazio hori plegu honen eranskin gisa ematen da.

Sarearen datuak hartuko dituzten langileek esperientzia eta ezagutza egiaztagarriak izan beharko dituzte horrelako lanetan, eta beren lana errazteko eta arintzeko behar duten esku-tresna izan beharko dute (tapak altxatzeko imanak, azazkal-barrak, kakoak, etab.).

Eskuragarri dagoen sarearen informazioak fidagarritasun mugatua du, horregatik, in situ xehetasunez aztertzea eta egiaztatzea beharrezkoa izango da. Horretarako, dauden elementu berezien kutxatila guztiak irekiko dira, eta horietako bakoitzeko fitxa bat osatuko da, ikusgarri dagoen informazioa jasoko duena. Fitxa horretan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira: geoposizionamendua, elementu mota, materiala, diametroa eta argazkia. Informazio hori erraz inportatu ahal izango da udalaren GISera, eta, horregatik, hasieratik zuzenean udalaren lan-hizkuntzan hartu edo automatikoki itzuli beharko da udalaren lan-hizkuntzara, hau da, euskarara.

GISean gaur egun oker jasota dauden hodi zatien tipologia eta ezaugarriak zuzenduko dira, kutxatilen ikuskapen bisuala eginez edo suntsitzaileak ez diren beste teknika batzuek erabilita ondoriozta daitezkeenean.

GISean jaso gabeko hodi-zatiak badaude, haien kokapena eta tipologia ahalik eta modu fidagarrienean ondorioztatuko dira, hartune-giltzen posizioa zuzenduko da, etab.

Kutxatilen bat ezin bada ireki, adibidez, ibilgailu bat haren gainean dagoelako edo kutxatilaren barruan dagoen material/zikinkeria pilaketa handiegia delako, eta, ondorioz, ezin badira kutxatila horiek erregistratu, ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie udaleko teknikariei, sortutako eragozpenari lehenbailehen konponbidea eman diezaioten eta lanarekin jarraitu ahal izan dadin.

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus

Era berean, elementuren batean hausturarik edo matxurarik hautemanez gero, lehenbailehen jakinaraziko da.

Esperientzian eta egindako kontsultetan oinarrituta, lantalde bakoitzak gutxienez asteko 2,5 km sare inbentariatu ahal izango dituela kalkulatzen da, hartuneei buruzko informazio zehatza barne. Errendimendu hori nabarmen hobetu liteke eremu batzuetan: dagoen informazioa fidagarriagoa den eta aurrera egitea errazten duen eremuetan. Errendimendua estimatzeko, bost laneguneko asteak eta 8 orduko lanaldiak hartu dira kontuan.

Lanak egiteko dagoen aurrekontua eta epea kontuan hartuta, aldi berean bi lantalde dedikazio osoarekin erabili beharko dira, gutxienez. Dedikazio horrekin, gutxienez, udal-sarearen 40km inguru inbentariatu ahal izatea aurreikusten da; beraz, sareak gutxi gorabehera 102km dituenez, sarearen % 40 inguru inbentariatuko litzateke.

Hala ere, enpresa lizitatzaileek dagoen aurrekontuarekin eta epean ezarritako gutxieneko 40 km baina luzera gehiagoko datuak hartzeko duten gaitasuna eta konpromisoa baloratuko da. Nolanahi ere, errendimenduaren handipen horrek ezin izango du inola ere inbentarioan jasotako informazioaren kalitatea murriztu.

Udal-teknikariekin adostuko da inbentario horretarako jarraitu beharreko lehentasun-hurrenkera.

3. EMAITZAK ENTREGATZEA

Datuak jasotzeko kanpainan erregistratutako informazioa formatu digitalean emango dira.

Alde batetik, egindako lan guztiak deskribatuko dituen txosten bat idatziko da.

Bestalde, .shp edo .GeoJSON formatuan emango da inbentariatutako elementuen kokapena eta informazioa, udalaren GISean erregistratzeko. Inportatu beharreko informazioa, .qml formatuan.

Udalaren GISean sartzeko, kontuan hartu beharko da informazioak euskaraz egon beharko duela, eta horretarako udaleko teknikariekin adostuko da aldez aurretik zein izen erabili behar den elementu bakoitzerako.

Erabiliko den erreferentzia-sistema EPSG:25830-ETRS89/UTM zone 30N izango da.

4. EXEKUZIO-EPEA

2 HILABETEKO EPEA ezartzen da lan guztiak amaitzeko.

Hernaniko Udala, hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua | Gudarien plaza 1 – 20120 | IFK: P2004300F | T. 943 337 000 – F. 943 552 696 | hhz@hernani.eus | Hernani.eus

5. AURREKONTUA

Txosten honetan zehaztutako zerbitzuaren aurrekontua 54.740,00 €-koa da (66.235,40 € BEZ barne).

6. SAREAREN INFORMAZIOA

Udalaren Informazio Geografikoko Sisteman (GIS) eskuragarri dagoen ur hornidura sarearen informazioa .zip fitxategi batean eransten da

Hernanin, 2026ko otsailaren 27an

ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F

Firmado digitalmente por ANDRES MARIA ORBEA ESTEBANEZ - 72487037F
Fecha: 2026.02.27 15:36:37 +01'00'

Herri-lanak Saileko arduraduna